<p>10.2. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu praktiketako funtzionarioak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena; eta, horren osagarri, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko iragarki taulan ere bai.</p> <p>Praktiketako funtzionarioa Administrazioak ezarriko duen egunean hasiko da lanean. 10 egun baliodun igaro behar dira, gutxienez, izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik lanean hasteko egunera arte.</p> <p>Praktiketako funtzionario izendapena indarrean izango da aukeratua praktiketako funtzionario lanean hasten denetik karrerako funtzionarioaren lanpostuaz jabetzen den arte. Lanpostu horretaz jabetzeko, prestakuntza ikastaroa edota dagokion praktika aldia egin eta gainditu behar ditu.</p> <p>Funtzionario postura halabeharrezko arrazoirik izan gabe sartzen ez direnek praktiketako funtzionario izendatzeari uko egiten diotela joko da.</p> <p>10.3. Praktika aldia edota prestakuntza ikastaroa.</p> <p>10.3.1. Praktiketako funtzionarioek praktika aldia egingo dute. Aldi horrek, gehienez, 12 hilabete iraungo du eta hautaketa prozesua osatzen duen beste fase bat izango da. Aldi horretan gai edo ez-gai kalifikazioa lortuko da, hamargarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.</p> <p>Hautagaiak praktiketako aldia egiten ez badu, edota gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badu, praktiketako funtzionario izateari utziko dio eta plaza berrian karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzakeen eskubideak galduko ditu.</p> <p>Praktika aldiaren garapena baloratzeko asmoz, -Batzorde Ebaluatzailea osatuko da.</p>	<p>10.2. El nombramiento de los/as funcionarios/as en prácticas lo efectuará la Junta Directiva del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani y será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y, complementariamente, en el tablón de anuncios del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani.</p> <p>La incorporación como funcionario/a en prácticas se realizará el día que fije la Administración. Entre la publicación del nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y el día señalado para la incorporación transcurrirán como mínimo 10 días hábiles.</p> <p>El nombramiento como funcionario/a en prácticas será por el período de tiempo comprendido entre la incorporación como funcionario/a en prácticas y la toma de posesión como personal funcionario de carrera, tras la realización y superación del curso de formación y/o del período de prácticas correspondiente.</p> <p>Se entenderá que renuncian al nombramiento como funcionarios/as en prácticas quienes, sin causa de fuerza mayor, no se incorporen al mismo.</p> <p>10.3. Periodo de prácticas y/o curso de formación.</p> <p>10.3.1. Las personas funcionarias en prácticas realizarán un periodo de prácticas que tendrá una duración, como máximo, de 12 meses y completará, como una fase más, el proceso selectivo. Este periodo será calificado como Apto/a No Apto/a, y se regirá por lo previsto en la base general décima.</p> <p>La no incorporación al periodo de prácticas, o la no acreditación de la aptitud mínima exigida para su superación, supondrá el cese como persona funcionaria en prácticas y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para el nombramiento como funcionario de carrera en la nueva plaza.</p> <p>A fin de valorar el desarrollo del periodo de prácticas, se constituirá una Comisión Evaluadora.</p>
--	--

<p>Batzorde Ebaluatzailea hautatze prozesuko epaimahai kalifikatzaileko hiru partaidek osatuko dute.</p> <p>10.3.2. Praktika aldia egitea hautaketa prozesuko beste aldi bat gehiago izango da, eta baztertzaila izango da.</p> <p>10.3.3. Praktika aldia ebaluatzeko, Ebaluazio -Batzorde bat eratuko da. Epaimahai Kalifikatzailearentzat ezarritako funtzionamendu arau berberak izango dira Ebaluazio Batzordea ere arautuko dutenak. Batzorde horrek gutxienez hiru kide izango ditu, guztiak karrerako funtzionarioak. Praktika aldia ebaluatuko du, eta hautagai bakoitza gai edo ez gai den esango du.</p> <p>Praktiketako funtzionario izendatzeko ebazpen berean izendatuko dira Ebaluazio Batzordeko kideak, eta publizitate bera egingo zaie bi izendapenei.</p> <p>Praktiketako funtzionario guztiek tutorea izango dute, Ebaluazio Batzordeak izendatuta. Tutoreak praktiketako funtzionarioen jardueren jarraipena eta txostena egingo du, eta txostena emango du, ezarritako ebaluazio irizpideekin bat. Ebaluazio prozedura jarraitua izango da praktika aldiak dirauen bitartean.</p> <p>Praktika aldia bukatutakoan, praktiketako funtzionarioen gaineko txostenak eskatuko dizkie Ebaluazio Batzordeak tutoreei, praktika aldia irizpide hauen arabera ebaluatzeko:</p> <p>— Hurrengo arloetan azaldutako gaitasunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala.</li> <li>• Erantzukizun eta eraginkortasun sena.</li> <li>• Ikasteko interesa, gogoia eta ekimena.</li> </ul> <p>— Hurrengo arlo hauek oinarri azaldutako gaitasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan taldean integratzea.</li> <li>• Barne eta kanpo harremanetan egokitzea.</li> </ul> <p>Ebaluazio Batzordeak, dagokion ebaluazioa egin</p>	<p>La Comisión Evaluadora estará compuesta por tres de los miembros del Tribunal Calificador del proceso selectivo.</p> <p>10.3.2. La realización de un período de prácticas constituirá una fase más del proceso selectivo y tendrá carácter eliminatorio.</p> <p>10.3.3. A fin de evaluar el período de prácticas, se constituirá una Comisión Evaluadora que se regirá por las mismas reglas de funcionamiento establecidas para el Tribunal Calificador. La citada Comisión, que estará integrada por un mínimo de tres miembros, todos/as ellos/as funcionarios/as de carrera, valorará el período de prácticas y calificará a cada aspirante como apto o no apto.</p> <p>La designación de los integrantes de la Comisión Evaluadora se efectuará en la misma resolución en la que se realice el nombramiento de los/as funcionarios/as en prácticas y se le dará la misma publicidad que al citado nombramiento.</p> <p>Todos/as los/as funcionarios/as en prácticas tendrán un/a tutor/a designado/a por la Comisión Evaluadora. Ese/a tutor/a realizará el seguimiento e informe de las actividades del funcionario/a en prácticas y emitirá un informe de conformidad con los criterios de evaluación establecidos. El procedimiento de evaluación tendrá carácter de continuidad a lo largo del período de prácticas.</p> <p>A la finalización del período de prácticas, la Comisión Evaluadora recabará los informes de los/as tutores/as sobre los/as funcionarios/as en prácticas, a fin de proceder a evaluar el mencionado período en base a los siguientes criterios:</p> <p>— Aptitudes demostradas en cuanto a:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Capacidad de trabajo y rendimiento profesional.</li> <li>• Sentido de la responsabilidad y eficiencia.</li> <li>• Interés por el aprendizaje, disposición e iniciativa.</li> </ul> <p>— Capacidad demostrada en cuanto a:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Integración en el equipo de trabajo.</li> <li>• Adecuación de sus relaciones internas y externas.</li> </ul>
---	---

<p>eta gero, Hernaniko Udealeko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Presidenteri praktika aldia gainditu duten hautagaiak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena bidaliko dio.</p> <p>Praktika aldia gainditu ez duten hautagaiak zuzenean baztertuko dira, eta karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzaketen eskubideak galduko dituzte. Hori Zuzendaritza Batzordeak erabaki beharko du, ebazpen arrazoituaren bidez, aurrez hautagaiak esateko duena entzun eta gero.</p> <p>10.4. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakunde Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu karrerako funtzionarioak. Gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena; eta, horren osagarri, udaletxeko iragarki taulan ere bai.</p> <p>Karrerako funtzionario izendatuak izan direnek gehienez hamar lanegun baliouduneko epean hartuko dute kargua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.</p> <p>Ezarritako epearen barruan kargua hartzen ez dutenek, eta horren kausa ezinbesteko kasua ez bada, deialditik eratorritako eskubide guztiak galduko dituzte, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakunde langile funtzionario bihurtzeari dagokionez.</p> <p>10.5. Deialdian ateratako lanpostuak beteko direla bermatzeko, 9.2 oinarriko bigarren paragrafoan ezarritako prozedura aplikatu ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak, bai eta oinarri horretan jasotako baldintzak gertatuz gero ere, kasu hauetan:</p> <p>a) Praktiketako funtzionario izendatua izan den izangaia praktika aldia egitera sartzen ez denean, ezinbesteko kasuren bat izan gabe (10.2 oinarriko azken paragrafoa).</p> <p>b) Izangairen batek praktika aldia gainditzen ez duenean (10.3 oinarriko azken paragrafoa).</p> <p>c) Karrerako funtzionario izendatua izan den izangaia lanpostuaren kargu hartzen ez badu, horretarako ezarritako epearen barruan,</p>	<p>La Comisión Evaluadora, una vez realizada la evaluación, elevará al Presidente del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani una propuesta de nombramiento como funcionarios/as de carrera a favor los/as aspirantes que hayan superado el período de prácticas.</p> <p>Su no superación determinará la automática exclusión del/la aspirante y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su nombramiento como funcionario/a de carrera, lo que se deberá determinar por la Junta Directiva mediante una resolución motivada, previa audiencia al/la aspirante.</p> <p>10.4. El nombramiento de los/as funcionarios/as de carrera lo efectuará la Junta Directiva del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani, que será posteriormente publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y, complementariamente, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.</p> <p>Quienes hayan sido nombrados/as funcionarios/as de carrera deberán tomar posesión en un plazo máximo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la publicación del nombramiento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p> <p>Quienes en el plazo establecido, y salvo causas de fuerza mayor, no tomen posesión perderán todos los derechos derivados de la convocatoria para la adquisición de la condición de personal funcionario del Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani.</p> <p>10.5. A fin de asegurar la cobertura de las plazas convocadas, la Junta Directiva podrá aplicar el procedimiento establecido en el segundo párrafo de la base 9.2, además de en los supuestos recogidos en la citada base, en los siguientes casos:</p> <p>a) Cuando algún/a aspirante que ha sido nombrado/a funcionario/a en prácticas no se incorpore a la realización del período de prácticas sin que medie causa de fuerza mayor (último párrafo de la base 10.2).</p> <p>b) Cuando algún/a aspirante no supere el período de prácticas (último párrafo de la base 10.3).</p> <p>c) Cuando, sin mediar causa de fuerza mayor,</p>
--	--

<p>ezinbesteko kasuren bat izan gabe (10.4 oinarriko azken paragrafoa).</p>	<p>algún/a aspirante que ha sido nombrado/a funcionario/a de carrera no tome posesión dentro del plazo establecido al efecto (último párrafo de la base 10.4).</p>
<p><b>Hamaikagarrena. Arau osagarriak.</b></p> <p>Deialdi bakoitzari aplikagarri zaizkion oinarrietan jaso ez diren kasuetarako, hautatze prozesuek ondorengo lege hauetan ezarritakoa bete beharko dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuan; Euskal Funtzio Publikoaren Legean (1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legea); Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea); Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea); Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea) (momentuz indargabetuak izan ez diren alderdietan eta indargabetzea gertatzen den bitartean); Estatuko Administrazioan Langileak sartzeko Arautegi Orokorrean (1995eko martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, aplikazio osagarrikoa izango da); eta gai horretan indarrean diren gainerako arauetan.</p> <p><b>Euskaraz eta gaztelaniaz testuen artean kontraesanak sortuz gero, euskaraz dagoen erreferentzia-testu oinarritzat hartuko da.</b></p>	<p><b>Undécima. Normas supletorias.</b></p> <p>En lo no previsto en las bases aplicables a cada convocatoria, los procesos selectivos se ajustarán a lo establecido en el Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre; en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca; en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público; en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (en los aspectos que no han sido temporalmente derogados y hasta que dicha derogación se produzca); en el Reglamento General de Ingreso del Personal al Servicio de la Administración del Estado, aprobado por Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, que será de aplicación supletoria; y en el resto de la normativa vigente en la materia.</p> <p><b>Si existen contradicciones entre los textos de euskera y castellano, se tomará como texto base de referencia el texto en euskera.</b></p>
<p><b>Hamabigarrena. Argitaratzea.</b></p> <p>Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdia, bere oinarri arautzaileekin batera. Gainera, Espainiako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdiaren laburpen zehatza, informazio hau izango duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Deialdia egin duen korporazioa.</li> <li>— Hautaketa prozesuaren izena.</li> <li>— Deialdiko lanpostu kopurua.</li> <li>— Oinarriak eta deialdia argitaratu diren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN eguna eta zenbakia.</li> </ul>	<p><b>Duodécima. Publicación.</b></p> <p>La convocatoria se publicará, junto con sus bases reguladoras, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Además, se publicará en el Boletín Oficial del Estado un extracto detallado de la convocatoria que contendrá la siguiente información:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Corporación convocante.</li> <li>— Denominación del proceso selectivo.</li> <li>— Número de plazas convocadas.</li> <li>— Fecha y número del BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en que se han publicado las bases y la convocatoria.</li> </ul>
<p><b>Hamahirugarrena. Aurka egitea.</b></p> <p>Deialdiak, oinarriak nahiz deialdietatik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazioko egintzak aurkatu</p>	<p><b>Decimotercera. Impugnación.</b></p> <p>Las convocatorias, sus bases y los actos administrativos que se deriven de aquellas y de la actuación de los Tribunales Calificadores se</p>

<p>egin ahal izango dituzte interesdunek, bi lege hauetan onartutako kasuetan eta moduan: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (2015eko urriaren 1ekoa) eta Administrazioarekiko Auzien Eskumena arautzen duen 29/1998 Legean (1998ko uztailaren 13koa).</p>	<p>podrán impugnar por las personas interesadas en los casos y en la forma que establecen la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.</p>
<p><b>Xedapen gehigarri bakarra. Lan poltsak.</b></p> <p>Praktiketako Gizarte Laneko teknikari izendapena egiten den unean, eskumena duen udal organoak ebazpena egingo du, Gizarte Laneko teknikoaren lan poltsa osatuz oposizio-lehiaketa aldia gainditu bai baina deialdian eskainitako plaza kopurua gainditzeagatik izendatu ez diren pertsonen zerrendarekin.</p> <p>Prestakuntza eta praktika aldia egin duten eta gainditu ez duten hautagaiek ez dute aipatutako poltsa horretan sartzeko eskubiderik.</p> <p>Poltsa hori gerora lanpostuak betetzeko oinarria izango da. Lan poltsako lehentasun ordena hautagaiek lortzen duten puntuazioaren arabera ezarriko da.</p> <p>Une bakoitzean udalak lan poltsak eratu eta kudeatzeari buruz onartuak dituen irizpideak izango dira aplikagarri.</p>	<p><b>Disposición adicional única. Bolsas de trabajo.</b></p> <p>En el momento en el que se realice el nombramiento del/la técnico/a de Servicios Sociales en prácticas, el órgano municipal competente emitirá una resolución mediante la que se constituirá una bolsa de trabajo de técnicos/as de servicios sociales, con la lista de personas aprobadas en la fase de concurso-oposición que, por exceder el número de plazas convocadas, no sean nombradas.</p> <p>Las personas aspirantes que accedan al periodo de prácticas, pero no la superen, no tendrán derecho a formar parte de la citada bolsa.</p> <p>La bolsa será la base para futuras coberturas. El orden de prelación en la bolsa de trabajo será el establecido por el orden de puntuación obtenido por los/as aspirantes.</p> <p>Resultarán de aplicación los criterios que en materia de constitución y gestión de bolsas de trabajo se encuentren aprobados por el Ayuntamiento en cada momento.</p>

I ERANSKINA GAI ZERRENDA OROKORRA	ANEXO I TEMARIO GENERAL
<p>1. gaia. 1978ko Konstituzioa.            — Atariko titulua.            — I. tituluko II, IV eta V. kapituluak. Eskubide eta askatasunak. Askatasun garantia eta oinarrizko eskubideak. Eskubide eta askatasunen etendura.</p>	<p>Tema 1. La Constitución de 1978.            - Título Preliminar.            - Título I, Capítulos II, IV y V. Derechos y libertades. De las garantías de las libertades y derechos fundamentales. De la suspensión de los derechos y libertades.</p>
<p>2. gaia. Administrazio Prozedura. 39/2015 Legea.            — Atariko titulua: Xedapen orokorrak.            — I eta II. tituluak. Interesdunak. Administrazio Publikoen Jarduera.</p>	<p>Tema 2. Procedimiento administrativo. Ley 39/2015.            - Título Preliminar: Disposiciones generales.            - Títulos I y II. De los interesados. De la actividad de las Administraciones Públicas.</p>
<p>3. gaia. Administrazio Prozedura. 39/2015 Legea.            — III. Titulua. Administrazio Egintzak.            — IV. Titulua: Administrazio Prozedura Erkideari buruzko xedapenak.</p>	<p>Tema 3. Procedimiento administrativo. Ley 39/2015.            - TÍTULO III. De los actos administrativos.            - TÍTULO IV: De las disposiciones sobre el procedimiento administrativo común.</p>
<p>4. gaia. Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Estatutuak</p>	<p>Tema 4. Estatutos del Organismo Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak</p>
<p>5. gaia. Hernaniko Udaleko alkatea eta zinegotziak. Gobernu taldeko kideak, alkateordeak eta zinegotzi ordezkariek.</p>	<p>Tema 5. Alcaldía y concejalías del Ayuntamiento de Hernani. Componentes del Equipo de Gobierno, tenencias de alcaldía, y concejalías delegadas.</p>
<p>6. gaia. Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaila: Udal errolda; herritarren eskubideak eta betebeharrak (15. artikulutik 18 artikulura)</p>	<p>Tema 6. Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local: Padrón municipal; derechos y obligaciones de la ciudadanía (artículos 15 a 18)</p>
<p>7. gaia. Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaila: Udal langileak (89. Artikulutik 104 artikulura)</p>	<p>Tema 7. Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local: Personal al servicio del Ayuntamiento (artículos 89 a 104)</p>
<p>8. gaia. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.            — II. titulua. Herri Administrazioen zerbitzuan diharduten langileak.            — III. tituluko I. kapitulua. Enplegatu publikoen eskubideak.            — III. tituluko VI. kapitulua. Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea.            — Título VII. Régimen disciplinario.</p>	<p>Tema 8. Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado mediante Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.            - Título II. Personal al servicio de las administraciones públicas.            - Título III, Capítulo I: Derechos de las empleadas y empleados públicos.            - Título III, Capítulo IV. Derechos de las empleadas y empleados públicos. Código de conducta.            — Título VII. Régimen disciplinario.</p>
<p>9. gaia. Datuak babestea: 15/1999 Lege Organikoa.</p>	

<p>— I. eta II. tituluak. Xedapen Orokorrak. Datuak babesteari buruzko printzipioak.</p> <p>10. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea. — I. titulua, II. eta III. kapituluak.</p> <p>11. gaia. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, -otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. — Atariko titulua. Xedea, aplikazio eremua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak.</p> <p>12. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. — I. kapitulua. Xedea eta aplikazio eremua. — III. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak.</p>	<p>Tema 9. Protección de datos: Ley Orgánica 15/1999. - Títulos I y II. Disposiciones generales. Principios de la protección de datos.</p> <p>Tema 10. Transparencia. Ley 19/2013. - Título I, Capítulos II y III.</p> <p>Tema 11. Ley 4/2005, de 18 de febrero, del País Vasco para la igualdad de mujeres y hombres. - Título Preliminar. Objeto, ámbito de aplicación y principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes públicos en materia de igualdad de mujeres y hombres.</p> <p>Tema 12. Ley 31/1995, de 8 de febrero, de Prevención de Riesgos Laborales. - Capítulo I. Objeto y ámbito de aplicación. - Capítulo III. Derechos y obligaciones.</p>
---	--

II ERANSKINA BERARIAZKO GAITEGIA	ANEXO II TEMARIO ESPECÍFICO
<p>1.- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Xedapen Orokorrak (1.-13. artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak (14-26 artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua (27.-32. artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren planifikazioa (33-38 artikulua). Herri Administrazioen eskumenak (39.- 42. artikulua). Administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa (43.-46. artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzazioa (54-58 artikulua). Ekimen pribatuaren esku hartzea (59.- 60. artikulua).</p> <p>2.- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoa.</p> <p>3.- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa eta I. ERANSKINA (Zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei buruzko fitxak). Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa (3.-17. or.).</p> <p>4.- 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa, I. ERANSKINA (Fitxa sozialaren eredu) eta II. ERANSKINA (Diagnostikoa: II.a atala).</p> <p>5.- Gizarte Langintzako Diplomatuaren deontologia kodea. Gizarte Langintzako Diplomatuaren eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.</p> <p>6. Gizarte Lana: kontzeptua, oinarriak, helburuak, egitekoak eta printzipioak.</p> <p>7. Gizarte Laneko metodologia, individuala-taldekoa-komunitatekoa. Azterlan-ikerlana, gizarte diagnostikoa, plangintza, exekuzioa – jarraipena eta ebaluazioa.</p> <p>8. Eredu kontzeptua gizarte lanean, ereduaren kontzeptualizazioa eta egitura gizarte lanean, gizarte lanean esku hartzeko hainbat eredu.</p> <p>9. Lehen mailako eta bigarren mailako arretako Gizarte Zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren. Definizioa, desberdintasunak</p>	<p>1.- Ley 12 /2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Disposiciones Generales (artículos 1 a 13). Prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales (artículos 14 a 26). Organización del Sistema Vasco de Servicios Sociales (artículos 27 a 32). Planificación en el Sistema Vasco de Servicios Sociales (artículos 33 a 38). Competencias de las administraciones públicas (artículos 39 a 42). Cooperación y Coordinación interadministrativa (artículos 43 a 46). Financiación del Sistema Vasco de Servicios Sociales (artículos 54 a 58). Intervención iniciativa privada (artículos 59 a 60).</p> <p>2.- Decreto 64/2004, de 6 de abril, Carta de Derechos y Obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales y el régimen de sugerencias y quejas.</p> <p>3.- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y ANEXO I (Fichas de los servicios y prestaciones económicas). Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa (páginas 3 a 17).</p> <p>4.- Decreto 353/2013, de 28 de mayo, de Ficha Social del Sistema Vasco de Servicios Sociales y del instrumento de diagnóstico social del Sistema Vasco de Servicios Sociales, ANEXO I (Modelo ficha social) y ANEXO II (Diagnóstico: apartado II.a).</p> <p>5.- Código Deontológico de la Profesión de Diplomado en Trabajo Social. Consejo General de Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales. Declaración Universal de los Derechos Humanos.</p> <p>6. Trabajo Social: Concepto, fundamentos, objetivos, funciones y principios.</p> <p>7. Metodología del Trabajo Social, Individual-grupal-comunidad. Estudio-investigación, diagnóstico social, planificación, ejecución – seguimiento y evaluación.</p> <p>8. El concepto de modelo en el trabajo social, conceptualización y estructura del modelo en trabajo social, diferentes modelos de intervención en el trabajo social.</p> <p>9. Servicios Sociales de atención primaria y secundaria en el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Definición, diferencias y ámbitos de</p>

<p>eta jarduera eremuak (Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legearen 27., 28., 29. eta 30. artikulua). Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako lehen mailako arretako gizarte langile batek ematen eta gauzatzen dituen prestazio teknikoak: 12/2008 Legea (14. eta 15. artikulua) eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu zorroari buruzko 185/2015 Dekretua (III. eranskina: Prestazio teknikoen definizioak).</p> <p>10. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako arreta eta esku hartze ereduak. Esku hartzeko oinarriko prozedura, erreferentziako profesionala, kasuaren arduraduna, arreta plan pertsonalizatua (Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 8. eta 19. artikulua).</p> <p>11. Elkarrizketa Gizarte Lanetan: kontzeptua, sailkapenak, gizarte langilearen jarrerak elkarrizketan, elkarrizketaren estiloa, elkarrizketatzeko prozesuaren egitura. Etxez - etxeko bisita: kontzeptua eta motak.</p> <p>12. Gizarte lanerako oinarriko tresnak: Gizarte Historia - Gizarte Txostena - Genograma - Elkarrizketen erregistroa - Jardueren erregistroa. Definizioa eta eginkizuna.</p> <p>13. 4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.</p> <p>14. 39/2006 legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa: Atariko titulua, 6. artikulua eta 13.-31. artikulua.</p> <p>15. Mendetasuna balioesteko baremoa: 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, 39/2006 Legeak ezarritako mendetasuna baloratzeko baremoa onestekoa: artikulua bakarra eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak.</p> <p>16. Desgaitasuna: 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena (1.-7. eta 48.-52. artikulua). 1971/1999 Dekretua, abenduaren 23koa, ezintasun maila aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa (1.-4. eta 9.-12. artikulua, eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak).</p> <p>17. 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.</p> <p>18. Telelaguntza Zerbitzu Publikoa; 144/2011 Dekretua, ekainaren 28koa (1.-12. artikulua).</p>	<p>actuación (artículos 27, 28, 29, 30 de la Ley de Servicios Sociales 12/2008). Prestaciones técnicas que ofrece y desempeña una Trabajadora Social de atención primaria en el Sistema Vasco de Servicios Sociales: Ley 12/2008 (artículos 14 y 15) y Decreto de Cartera de prestaciones y servicios del SVSS 185/2015 (Anexo III, Definición de prestaciones Técnicas).</p> <p>10. Modelo de atención y de intervención en el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Procedimiento básico de intervención, profesional de referencia, responsable de caso, plan de atención personalizada (artículos 8 y 19 de la Ley de Servicios Sociales 12/2008).</p> <p>11. La entrevista en el Trabajo Social: concepto, clasificaciones, actitudes del trabajador social en la entrevista, el estilo en la entrevista, estructura del proceso de entrevistar. La visita domiciliaria: Concepto y tipos</p> <p>12. Instrumentos básicos para el trabajo social: Historia Social - Informe Social - Genograma - Registro de entrevistas - Registro de Actividades. Definición y función.</p> <p>13. DECRETO 4/2011, de 18 de enero, de las ayudas de emergencia social.</p> <p>14. Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia: Título preliminar, artículo 6 y artículos 13 a 31.</p> <p>15. Baremo de valoración de dependencia: Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006: artículo único u disposición adicional primera y segunda.</p> <p>16. Discapacidad Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social (artículos 1 a 7 y 48 a 52). Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía (artículos 1 a 4 y 9 a 12, y disposición adicional primera y segunda).</p> <p>17. DECRETO 13/2016, de 2 de febrero, de intervención integral en Atención Temprana en la Comunidad Autónoma del País Vasco.</p> <p>18. Decreto 144/2011, de 28 de junio, del servicio público de teleasistencia (artículos 1 a 12).</p>
--	---

<p>19.- 25/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeko abenduaren 14ko 39/2016 Legeak ezarritako prestazio ekonomikoak arautzekoa.</p> <p>20. 7/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena (1.-10. artikulua eta xedapen gehigarria).</p> <p>21. 15/2015 Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa (1.-17. artikulua eta xedapen gehigarria).</p> <p>22. 12/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen duena (1.-8. artikulua).</p> <p>23. Hernaniko Etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen 2018 udal erregelamendua.</p> <p>24. Hernaniko GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAK PREBENITU, SAIHESTU EDO ARINTZEKO BAKARKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO araudia (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 33 zkia., 2018ko otsailaren 15)</p> <p>25. EAEko adineko pertsonenganako tratu -txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura. EAEko adineko pertsonenganako tratu -txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2015 (9.-15. eta 18.-26. orriak).</p> <p>26. 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, adingabearen babes juridikoari buruzkoa: I. titulua, III. kapitulua (11.-22. artikulua).</p> <p>27. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko: I. titulua, II. titulua: Oinarrizko eskubideak (9.-17. artikulua). Erakundeen arteko elkarlana (21. artikulua). Administrazioak hezkuntzaren arloan jarduteko printzipioak (24. eta 25. artikulua). Gizarte integrazioarako eskubidea (40.-44. artikulua). III. titulua (48.-63. artikulua).</p> <p>28.-26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haur eta nerabeen babes sistema aldatzekoa: Lehen</p>	<p>19. Decreto Foral 25/2009, de 21 de julio, por el que se regulan las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.</p> <p>20. Decreto Foral 7/2015, de 14 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (Artículos 1 a 10 y disposición adicional).</p> <p>21. Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículo 1 a 17 y disposición adicional).</p> <p>22. Decreto Foral 12/2015, de 21 de abril, por el que se regula el servicio residencial de estancias temporales para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (artículos 1 a 8).</p> <p>23. Reglamento sobre ayuda domiciliaria del Ayuntamiento de Hernani 2018.</p> <p>24. Hernaniko GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAK PREBENITU, SAIHESTU EDO ARINTZEKO BAKARKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO araudia (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 33 zkia., 2018ko otsailaren 15)</p> <p>25. Manual de prevención y detección de malos tratos físicos y económicos a personas mayores en la CAPV. Manual de prevención y detección de malos tratos físicos y económicos a personas mayores en la CAPV. Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Gasteiz, 2015 (páginas 9 a 15 y 18 a 26).</p> <p>26. Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor: Título I, Capítulo III (artículos 11-22).</p> <p>27. Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia. Título I y II: Derechos fundamentales (artículos 9 a 17). Colaboración interinstitucional (artículo 21). Principios de actuación administrativa en el ámbito de la educación (artículos 24 y 25). Derecho a la integración y a la protección social (artículos 44 a 44). Título III (artículos 48 a 63).</p> <p>28.- Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia. Artículo primero</p>
---	---

<p>artikuluak (6.-21. modifikazioak).</p> <p>29. Gizarte esku hartzea babesgabetasun egoeran diren gazteekin eta haien familiekin. Hartzailleak. Udal eta foru mailako esku hartze kompetentziak, eginkizunak eta baliabideak. Guía de actuación en situaciones de desprotección infantil (Haurren babesgabetasun egoeren aurrean jarduteko gida). Gipuzkoako Foru Aldundia. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua. 2004. Koordinatzailea: M. I. Arruabarrena.</p> <p>30.-Arrisku eta babesgabetasun egoerak. Definizioa. Larritasuna balioesteko prozedura eta irizpideak. Larritasun mailak eta ondoriozko jarduna. 152/2017 DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena. I. zatia: Arrisku- eta desanparo-egoerak: Definizioa eta larritasun mailak. II. zatia: Arrisku- eta desanparo-egoerak: Larritasunaren balorazioa. Arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko irizpide orokorrak eta prozedura.</p> <p>31. Haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko prozedura: harrera, ikerketa, ebaluazioa eta esku hartzeko planaren diseinua eta exekuzioa. Guía de actuación en situaciones de desprotección infantil (Haurren babesgabetasun egoeren aurrean jarduteko gida). Gipuzkoako Foru Aldundia. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua. 2004. Koordinatzailea: M.I. Arruabarrena. Esku hartze prozesuaren deskribapena.</p> <p>32. 85/2018 DEKRETUA, ekainaren 5koa, Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena</p> <p>33. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako. III. titulua, VII. Kapituluak.</p> <p>34. 1/2004 Lege Organikoa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa: I. titulua, II. titulua eta V. Titulua.</p> <p>35. Genero indarkeria. Kontzeptua eta emakumeen aurkako indarkeria motak. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak. Emakumeen aurkako indarkeria EAEn.</p>	<p>(Modificaciones 6 a 21).</p> <p>29. Intervención social con jóvenes en situación de desprotección y con sus familias. Personas destinatarias. Competencias, funciones y recursos interventivos a nivel municipal y foral. Guía de actuación en situaciones de desprotección infantil. Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social. 2004. Coordinación: M. I. Arruabarrena.</p> <p>30.- Situaciones de riesgo y desamparo. Definición. Procedimiento y criterios para valorar de la gravedad. Niveles de gravedad y actuaciones a seguir. DECRETO 152/2017, de 9 de mayo, por el que se aprueba la actualización del Instrumento para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo en los Servicios Sociales Municipales y Territoriales de Atención y Protección a la Infancia y adolescencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Balora). Parte I: Situaciones de riesgo y desamparo: Definición y niveles de gravedad. Parte II: Situaciones de riesgo y desamparo: Valoración de la gravedad. Criterios generales y procedimiento para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo y desamparo.</p> <p>31. Procedimiento de intervención ante situaciones de desprotección infantil: recepción, investigación, evaluación y diseño y ejecución del plan de intervención. Guía de actuación en situaciones de desprotección infantil. Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social. 2004. Coordinación: M.I. Arruabarrena. Descripción del proceso de intervención.</p> <p>32. DECRETO 85/2018, de 5 de junio, de segunda modificación del Decreto sobre ayudas de emergencia social.</p> <p>33. Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. Título III, Capítulo VII.</p> <p>34. Ley Orgánica 1/2004, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género: Título I, Título II y Título IV.</p> <p>35. Violencia de género. Concepto y tipos de violencia contra las mujeres. Consecuencias de la violencia contra las mujeres. Violencia contra las mujeres en la CAPV. Informe final. Diciembre de 2015. Emakunde.</p>
--	--

<p>Amaierako txostena. 2015eko abendua. Emakunde. Emakumeen Euskal Erakundea. Eusko Jaurlaritza.</p> <p>36. Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. Esku hartzeko baliabideen eta zerbitzuen mapa. Prebentzio eta hezkuntza izaerako erakundeen erantzunak.</p> <p>Emakumeen aurkako indarkeria EAEn. Amaierako txostena. 2015eko abendua. Emakunde. Emakumeen Euskal Erakundea. Eusko Jaurlaritza.</p> <p>37. Indarkeria hautematea eta indarkeria adierazleak. Gizarte Zerbitzuen esparruan etxeko indarkeriaren eta sexu indarkeriaren biktimekin jarduteko protokoloa. Gizarte esku hartzea.</p> <p>Emakumeen Kontrako Tratu Txarren eta Sexu indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida. Emakunde. Gasteiz, 2006. Bigarren zatia: Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktime diren emakumeen arreta.</p> <p>38. Erakunde arteko koordinazioa eta lankidetzaren genero indarkeriaren biktimekin arreta eraginkorra izateko.</p> <p>Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa. Emakunde. Emakumeen Euskal Erakundea. Gasteiz, 2009.</p> <p>39. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko: I.titulua, xedapen orokorrak (1.-10. artikulua), II.titulua, I. kapituluak, prestazio ekonomikoen ezaugarriak (11.-51. artikulua).</p> <p>40. Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko dekretua aldatzen duena.</p> <p>41. Eguneko arreta zerbitzuen araudia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 238 zkia., 2018ko abenduaren 12)</p> <p>42. Etxegabeei buruzko ETHOS sailkapena.</p> <p>43. Gizarte bazterketaren kontzeptua. 385/2013 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena. Kontuan izan behar da erreferentziarako araudietan aldaketak gerta daitezkeela eskabide orriak aurkezteko epea bukatu bitartean.</p> <p>44. Gizarte Bazterketaren Diagnostikoa eta Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratua. Gizarte Bazterketaren Diagnostikoa eta</p>	<p>Emakumeen Euskal Erakundea. Gobierno Vasco.</p> <p>36. Respuesta de las instituciones a la violencia contra las mujeres en la CAPV. Mapa de recursos y servicios de intervención. Respuesta de las instituciones de carácter preventivo y educativo.</p> <p>La violencia contra las mujeres en la CAPV. Informe final. Diciembre de 2015. Emakunde. Emakumeen Euskal Erakundea. Gobierno Vasco.</p> <p>37. Percepción de la violencia e indicadores de violencia. Protocolo de actuación con víctimas de violencia doméstica y violencia sexual en el ámbito de los servicios sociales. Intervención social.</p> <p>Guía de actuación ante el maltrato doméstico y la violencia sexual contra las mujeres para profesionales de los servicios sociales. Emakunde. Gasteiz, 2006. Segunda parte: Atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y violencia sexual.</p> <p>38. Coordinación y cooperación interinstitucional para la mejora de la atención a víctimas de violencia de género.</p> <p>II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención de mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual. Emakunde. Emakumeen Euskal Erakundea. Vitoria-Gasteiz, 2009.</p> <p>39. Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social: Título I, disposiciones generales (artículos 1 a 10), Título II, Capítulo I, Características de las prestaciones económicas (artículos 11-51).</p> <p>40. Decreto 16/2017, de 17 de enero, de modificación del Decreto de ayudas de emergencia social.</p> <p>41. Reglamento del servicio de atención diurna (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 238, 12 de diciembre de 2018)</p> <p>42. Clasificación ETHOS sobre las personas sin hogar.</p> <p>43. Concepto de exclusión social. DECRETO 385/2013, de 16 de julio, por el que se aprueba el Instrumento de Valoración de la Exclusión Social. Deben tenerse en cuenta las modificaciones en la normativa de referencia que puedan aprobarse durante el plazo de presentación de solicitud.</p> <p>44. Instrumentos Técnicos Comunes de Diagnóstico Social y Valoración de la Exclusión. Instrumentos Técnicos Comunes de Diagnóstico Social y Valoración de la Exclusión.</p>
---	---

<p>Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (ez tresna bere osotasunean, baizik eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eginiko 12 orriko dokumentuko deskribapen laburtua bakarrik).</p> <p>45. Gizarte-Lojamenduaren zerbitzua arautzen duen ordenantza (GAO 41 zkia. 2011ko martxoaren 2a)</p> <p>46. 6/2016 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa</p> <p>47. 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa. 6 TITULUA 1. KAPITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ANTOLAMENDUA ETA KOORDINAZIOA</p> <p>48. 50/2016 DEKRETUA, martxoaren 22koa, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duena.</p>	<p>Departamento de Empleo y Políticas Sociales (no el instrumento íntegro, sino solamente el resumen descriptivo de 12 páginas elaborado por la Dirección de Servicios Sociales)</p> <p>45. Ordenanza reguladora del Servicio de Alojamiento Social (BOG nº41 2 de marzo de 2011)</p> <p>46. LEY 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi.</p> <p>47. LEY 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias. TÍTULO 6 CAPÍTULO 1 ORDENACIÓN Y COORDINACIÓN ENTRE ADMINISTRACIONES DE CAE</p> <p>48. DECRETO 50/2016, de 22 de marzo, por el que se regula la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.</p>
--	---